

# Joan San Martin Ortiz de Zarate



## BALDIN JAKINTZA ARBOLA BALITZ

Joan San Martin Ortiz de Zarate Eibarren jaioa dugu, 1922ko Ekainaren 23an, eta San Joan egunez bataiatu zutelako ipini ere ipini zioten Joan izena. Armagin familiako, armagintzarako nahi zuten gurasoek, eta hala ikasi ere ikasi behar izan zuen.

Armak, ordea, bestelakoak nahi Joan San Martinek, eta gerora bederatzi musen armak hautatuko zituen bere gogoz eta gogotik. Jakintzen eta arteen arlo guztietara

iritsi nahirik ibili da eta dabil ahaleginetan gaur oraindik, bere liburutegi oparoan barna.

Hogei urte inguru zituenean euskaltzaletu zen Joan San Martin, eta euskararen balioaz eta gorabeheraz behin betirako kezkatu. Ordurako, edozein modutan, mendiaz maitemindurik zebilen –eskalada egiten zuen Pirinioetan eta Alpeetan, 1950ean Naranco de Bulnes igo zuen (hiru bider igoko zuen guztira urte haietan)–, eta mendiarekin batera, argazkiaz –Indalezio Ojanguren izango zuen maisu–, eta espeleologiaz –Gesaltzako leizetik hasita, Aitzbeltz eta San Martingo Harriraino–, eta etnologiaz –ondo ikasiko zuen urte haietan laborarien eta artzainen berri, haiei eskatzen baitzien aterbe sarritxo, haiekin hitz egiteko parada paregabea sortuz–, etnografiaraz –1966ean Luis Pedro Peña Santiagorekin batera argitaratu zuen *Estudio etnográfico de Urraul Alto*–, eta arkeologiaz –Santimamiñen jardun zuen Jose Miel Barandiaranekin–.

Idazteko bide ere mendiak eman ziola esan liteke kasik: Eibarko klubeko presidente izan zen –mendi federazioko presidenteorde ere izan zen, eta Merezimenduko zilarrezko domina dauka, inork gutxik bezala–, eta bertako aldizkarian hasi zen euskaraz idazten, garaiko askoren iritziz euskaraz idaztea alferrikako gauza bazen ere; orobat argitaratu zituen bere lanak Pyrenaica aldizkarian ere.

Artea izan da Joan San Martinen zaletasunik handienetakoa. Eta artea ikertzen eta artea bilatzen aritu da sarri. 1974ean *Euskal artea* argitaratu zuen. Baina *Gogoz* eta *Bidez. Euskal Herriko gauzak* liburuak –hainbat lekutan, egunkarietan batik bat, argitaraturiko lanen bildumak biak– izan litezke gure idazlearen kezken lekukorik garbienak.

Baina ezer badugu, euskal idazle dugu Joan San Martin. Joan San Martin bera baino zaharragoak dira, hein batean, Egigurendarra eta Otsalar. Egigurendarrak kontakizunak idatzi zituen. Otsalar, berriz, poeta zen. Euskal poesia berritzen saiatu zena. *Euzko-Gogoan* agertu zituen bere poesiak hasiera hartan. Gero baita *Eganen* eta *Olertin* ere. Gizarteko arazoei heldu zien Otsalarrek inork baino lehenago.

1957an izendatu zuten Euskaltzain, eta harrezkero saiatu da, eta biziki saiatu ere, Euskaltzaindia indartzen. Eraikundeko idazkari izan da urtetan, eta Jagon saileko buru.



Joan San Martinek idatzi duenean, zerbait egiaztatzeko idatzi du gehienetan. Eta hala ulertu ere ulertu behar dira zenbait liburu: gertakari edo maxiaketa baten erantzun gisan, alegia.

1959an argitaratu zuen *Juan Antonio Mogel eta Urkiza, bere bizitza eta lanak*. Euskaraz idatzi zitekeela erakusteko argitaratu zuen.

1960ean dator *Zirikadak*, Eibarko euskalkian emanak. Eta hain zuzen ere euskalki bakoitzak bere balioa –kasuan, Eibarkoak– baduela egiaztatzeko. Halako pasadi-  
zoak irakurriz zaletu zen eibartar bat baino gehiago euskararekin.

1968an, berriz, eta berriro euskal idazlerik ez zegoela esan zuenari ahoa itxi nahirik etorri zen *Escritores euskéricos*. Ez zuen ipini *vascos*, berariaz euskaraz idazten zutenak jaso nahi zituelako, bidenabar euskal idazleen lehen zerrenda osatuz.

*Uhin Berri* antologia argitaratu zuen 1969an, berriro apologetaren gisan, euskaraz poesia, eta poesia ona, idazten zela frogatzeko, zalantzan jarri baitzuten Madril aldean euskararen gaitasuna.

1971ean *Hegatsez* etorri zen. Berriro ere ahoberoak isilarazteko. Euskaraz idazten zuena jende ikasia zela egiaztatu nahi zuen Joan San Martinek, eta gainera edozein gai erabil zitekeela euskaraz. Horrela han eta hemen ikasten ari zen jendeari eskatu zion lantxoren bat, eta osatu liburua.

Egan aldizkariaren zuzendaritzan egin dituen urteak ez dira ahazteko: hainbat eta hainbat libururen errezensio, era guztietako gaiak erabiltzen zituzten hainbat artikulu, hainbat itzulpen argitaratu ditu aldizkari horretako orrietan. Baina inondik ere aipatu beharrekoak dira aldizkari horretan argitara emaniko itzulpen batzuk: *Zaldun bitxia* (1965), Michel Ghelderode-ren antzerkia, *Siñerako liburua* (1966) eta *Zezen larrua* (1983-1986), Salvador Espriu-ren poesia, *Kantak eta Poemak*, Bertolt Brecht-enak.

Beste bi ekintza ere aipatu behar dira Joan San Martinen bizitzan: liburuen hitzaurregile eta hizlari. Nekez da kontatzen zenbat libururi egin dion sarrera, zenbat idazleri lagun egin dio euskal letren plazara sartzen. Eta hizlari, Euskal Herriak egoera nahiko aldrebesa bizi zuenean, herriz herri ibili baitzen Joan San Martin honetaz eta hartaz hitzaldiak emanez.

Joan San Martinengatik zailago da esaten non argitaratu duen, non ez zuen argitaratu baino. Halere, hona non argitaratu duen, zerrenda osatu gabea: *Eibar, Euzko-Gogoia, Egan, Jakin, Karmel, Olerti, Zeruko Argia, Euskera, Eibarko Klub Deportiboko Boletina, BAP, Munibe, Buenos Airesko Euskalduna, Oviedoko Speleo, Pyrenaica, El Diario Vasco, Hoja del Lunes*, e.a.

Guzti horrekin, azkenik Ararteko izendatu zuen Eusko Legebiltzarrak, eta horretan jardun du urtetan Joan San Martinek, lehen poesiatan gaitzesten zuen injustiziarri borroka eginez.

Baldin jakintza balitz arbola, Joan San Martinek goitik beheraino eta behetik goraino aztertu nahiko luke, erroak ahortzi gabe, adarrez adar; banan-banan iker-tuko lituzke guztiak eta arbola osoa.

P. Zabaleta

**ARGITARATUTAKO LIBURUAK:**

*Juan Antonio Mogel, bere bizitza ta lanak*, 1959.  
*Zirikadak*, 1960.  
*Eztenkadak*, 1965.  
*Uhin berri*, 1969. Poesia.  
*Euskeraren inguruan*, 1969.  
*Hegatsez*, (elkarlanean), 1971.  
*Euskal Artea*, 1974.  
*Gogoz*, 1978.  
*Literaturaren inguruan*, 1980.  
*Bidez*, 1981.  
*Erromanikoa Euskal Herrian*, 1983.

**Prensa idatzian kolaborazioak:**

*Egan*-eko arduraduna urtetan eta hainbat egunkaritako kolaboratzaile izandakoa.